



Bilboko Orkestra Sinfonikoa  
Günter Neuhold-en  
zuzendaritzapean.  
Perkusioan, Martin  
Grubinger.

## Austriar-alemaniar tradizio sinfonikoa

ABONU-DENBORALDI zinez interesgarria proposatu digu Bilbao Orkestra Sinfonikoa. *Liluragarria!* izenburupean, publikoa erakartzeko egitarau aberatsa eta entzuteko pieza errazak –baina ez sinpleak– eskaintzen ditu talde bilbotarrak. Lehenengo saioan munduko biolin eta orkestrarako kontzertu famatuenetako bat –Txaikovskirena– eta orkestrazio distiratsuaren eredu den Stravinskiren *Suzko txoria* lan ederrak eman zituzten, eta, bigarren honetan (joan den ostiralean) austriar-alemaniar tradizio sinfonikoaren bi erakusgarri oso ezberdin baina funtsean oso hurbilak aurkeztu zituzten.

Ez diogu inori deskubrituko Mozarten sinfoniak musika klasikoko harribitxi preziatuenetakoak direla. Salzburgoko jenioak 41 sinfonia konposatu zituen, gazte-gaztea zenean gainera (lehenengoa, 6 urte zituela eta azkena 32 urterekin), eta guztietan musikaltasun naturala, freskotasuna, dotorezia vienarra eta orkestrazio eta harmonia paregabeak adierazi zituen. Mozarten sinfoniak entzuterakoan nabaritzen duzu musikak eraman egiten zaituela, hain ongi tratatuta baitaude tema eta motibo guztiak.

Aldi honetan, Mozarten *35. sinfonia Re maiorrean K. 385 'Haffner'* izenekoa interpretatu zuten. Sinfonia hori bere produkzioko ezagunenetako bat da. Vienan estreinatu zen 1782. urtean. Garai horretan egin zituen Mozartek bere lan garrantzitsuenak: piano kontzertu gehienak, opera ederrenak... Bilbao Orkestrak, Günter Neuhold-en batutapean, irakurketa adimentsua egin zuen. Bertsio diskretua, elegantea baina zentzuduna eskaini zuten, handikeriarik gabekoa. Soka eta egur ederrak dituztela frogatu zuten, batez ere andante

**Bilbao Orkestra Sinfonikoa. Zuzendaria:** Günter Neuhold. **Bakarlarria:** Antonio Meneses (txeloa). **Egitaraua:** Mozart eta Straussen obrak. **Lekua:** Bilboko Euskalduna Jauregia. **Data:** Azaroaren 9a.

mugimenduan, non haizeen eta soken arteko elkarriketak ongi azpimarratu baitzituzten. Eta bukaerako presto-an ederki nabarmendu zituzten mugimendu horretan agertzen diren errekurso tinbriko eta kontrapuntistikoak.

Saioaren bigarren zatian Richard Straussen maisulan bat entzuteko aukera izan genuen. *On Kixote, op.35* konpositore alemaniar honen 10 soinu-poemetako bat da. Straussek istorioak kontatu nahi zituen hitzik gabe, eta forma hau erabili zuen bere helburua lortzeko. Poema honek sarrera, tema, hamar bariazio eta finale bat ditu, eta zati bakoitzean On Kixoteren pasarte bat deskribatzen du. Orkestrazio aberatsekoa da lan hau, oparoa eta koloretsua, eta agian ausardia pittin bat falta izan zitzaion Neuhold zuzendariari mundu emankor hau agerian uzteko. Hala ere, interpretazio txukuna izan zen, oso. Straussen estilo liluragarrian, ugaritasunez entzuten dira instrumentu guztien ahotsak, baina leku berezia egiten die biolontxeloari (On Kixote) eta biolari (Sancho Panza). Biolontxeloan Antonio Meneses bakarlarri brasildarra luzitu zen, dudarik gabe, batez ere emandako propinetan: Bachen partita baten mugimendu pare bat, fin-finak. ■



Montserrat Auzmendi